


LIBURUKA



2021-2022



LIBURUKA izeneko irakurketa sustatzeko proiektua, 2021-2022 ikasturtean, egoera sanitarioak eskaintza baldintzatu arren, aurrera jarraituko du. Aurreko ikasturteetan bezala Ikastetxeekin elkarlanean, Irakurle Gazteak izeneko programarekin.

Irakurle gazteak egitasmoaren xede nagusia, Donostiako ikastetxeei liburutegietan mailegagarri dauden liburuak eskaintzea da. LHko (6-11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleei zuzenduta dago. Liburutegiek proiektu honetarako, hautatuak izan diren liburuak mailegatzeko dizkiete ikastetxeei, bi hilabete t'erdiko epean ikasgeletan irakur ditzaten. Liburu mota desberdinak (albuma, narratiba, poesia, antzerkia, komikia eta ezagutza liburuak) bidaltzen dira, euskaraz zein gaztelaniaz idatziak. Mailegu-epea bukatu ondoren, ikasleei gehien gustatu zaizkien liburuen iruzkinak **Liburu dantza** blogean argitaratzen ditugu.

Donostia Kulturako Liburutegien Sareak irakurketa sustatzeko **LIBURUKA** proiektua abiarazi zuen 2018-2019 ikasturtearen hasieran, hiriko hainbat ikastetxeren parte-hartzearekin. Arrakastatsua izan zenez, 2019-2020, 2020-2021 (egoera sanitarioak baldintzatuta) jarraipena izan zuen. Ikasturte horietan ekimen hauek garatu dira: Irakurle Gazteak, Motxila Txikia, Areto literarioa eta formakuntza liburuzaintzat.

+ **Info:** haurliburutegia@donostia.eus

LIBURUTEGIAK
BIBLIOTECAS
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS